

# Nafarrakaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko otsailak 11 / IV. urtea / 114. zenbakia

## Arco arte azoka: nafarrak urri baina urre



F1-F2: Goian, 'Mamira itzuli' Asun Goikoetxearen pintura. Behean, 'Barcelona 92' Dora Salazarren eskultura.



Atzo zabaldu zituen atek ofizialki Madrilgo Arco arte garaikideko azokak. Krisiak jota duela zenbait urtetik hona, «berpizte aztarnak» ikusi nahi izan dituzte antolatzaileek edizio honetan, baina errealitatea bestelakoa da. Merkaturik gabe, erosleak ezkutaturik, lanen kotizazioa franko jaitsi da azken urteotan, eta hori nabari da partehartzean zein mailan: atzerritik inoiz baino lan eta artista gutxiago helduko da azokara.

Nafarroatik, ohi bezala, ez da galeriarik joango Madrilera, baina Burundako hiru artistak paratuko dituzte euren lanak erakusleiko itzel honetan: Dora Salazar altsasuarrak, Asun Goikoetxea bakai-kurrak eta Angel Bados olaztiarrak. Irakasle bat eta bere bi ikasleak. Artista ezagun eta ospetsu bat, bidea hasi besterik egin ez duten birekin.

## Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



## Mapa mutuak

**H**atz arrasto baten itxura dute mapetan. Penintsula eta kontinenteen gainean es-tanpaturik agertzen dira, erdian B haundi bat dutelarik. Hirian bizi denak gehienetan nahiago luke linea makur horien artean tarte haundiagoa balego, B horren lekuan A bat balitz.

Telebisio aurrean dagoen hiritarrak ez dauka zeruari behatzeko astirik, ezta airea usaintzeko gogorik. Hala ere, ez dauka beldurrik biharamona prestatzeko tenorean. Nahikoa da aditasunez jarraitzea korbata zabaleko gizonen pronostikoak. Zientzia darie (datuei eta korbatei).

Hiritarra galdara amankomun batek ezitzen duen etxe batean iratzarriko da, airez epeltzen den auto batean joanen da berogailuak egun osoan piztua dituen bulego batera; handik atera eta radiadoreek girotzen duten tabernan murgilduko da, eta termometroak eta erlojuak betetzen hasi den hiria zeharkatuko du etxeko sofan etzan aurretik. Berriz ere zientziak laburtuko dio zer giro izan den gaur, eta igarriko zer espero dezakeen bihar.

Datuak, eta ez eguraldia. Eguraldia ez da deus. Eguraldiaz mintzo da giza traturako eskasa dena, bordari arima alde batera uzten ikasi ez duena. Hirian ibiltzen denarentzat agera sinpleagoa da. Bi eguraldi mota bereizten ditu: ona eta txarra. Eguzkia eta beroa ia beti dira onak, euria eta hotza gehienetan oso txarrak. Salbuespen bat egin ohi du: elurra. Elurak badu bere grazia, dibertigarria da, eta, batzutan, hagitz poetikoa. Telediariei ere amaiera polita ematen die.

Hiritarrari gutxitan nagusitzen zaio dudaren itzala. Badira horratio leku aski traidoreak. Aszensoretan (hor ere bada zientziarik) hamar, hoge, hogeita hamar segundu dirauten mundu itogarriak sortzen dira. Ez du merezi saltsa handitan sartzeak. Aszensorea jendez beterik baldin badoa irrifar neutro bat azaldu ahal da, erdi hutsik badago lurrera begira joan daiteke, eta tarteka zehar begirada bat bota ahal dio solairua adierazten duen zirkulu argituari. Purgatorio laburra.

Hirian sueto ibiltzen ikasi duena aszensoretik jalgi denean ohartu da mundua malerusuz beterik dagoela. Zeruan eta airean edonork ikus dezakeena ozenki komentatzera ausartzen dena baino malerusagorik ez baita munduan. Ez dakite azkenean isobarak manatzen duela.





### ERAKUSKETAK

**J.R. Elortza** artistaren erakusketa zabalik dago Iruñeko Pintzel Galerian, otsailaren 25a arte. Margolari honen lanak ikusteko ordutegia hauxe da: goizetan, 10.00etatik 13.30etara, eta arratsaldetan, 16.30etatik 20.00etara.

**Tafallako Feriari** buruzko erakusketa zabalik dago Tafallako Lagar aretoan. Bertan, Luis Amadoren argazkiak, Artetako Museoaren materiala eta Dokumentu Historikoak izango dira ikusgai.

### IKASTAROAK

**Yoga**, aretoko dantzak, eskulana, jostura, masaia, pintura eta marrazkia, antzerkia, emakumeentzako autodefentsa eta bestelako ikastaroak antolatu ditu Iruñeko Alde Zaharreko auzo elkarteak. Izena emateko, Elkar-teak Aldapa kalean duen egoitzara joatea edo 21 25 26 telefonora deitzea besterik ez dago.

**Kiromasaia**, Autodefentsa eta 'Zu zeu zaindu' izeneko ikastaroak antolatu ditu Andrea Zerbitzuak martxorako. Emakumeei zuzenduak, ordutegi ezberdinak izango dituzte. Informazio gehiago nahi duenak 22 77 14 telefonora deitzea besterik ez du.

### MINTZALDIAK

**'Herria: Mexiko'** izeneko mintzaldia eskainiko du bihar larunbata, otsailak 12, Emilio Rodriguez Calvo hizlariak, Auritzen. Aldi berean, diapositibak ere botako ditu, Mexikoko egoerari buruzko informazio zehatza emanez. Garraldako Etxabarrengeo elkarteak antolatutako Jardunaldi Internazionalisten barruan, 19.00etan hasiko da.

**'Espainiako Gobernuaren kanpo politika'** gaiari buruzko mintzaldia eskainiko du gaur, otsailak 11, Miguel Romero 'Viento Sur-eko' kazetariak. Komite Internazionalistek antolatuta. Arratsaldeko 19.30etan hasiko da.

**'Dhaulagiri: izain eta ekaitzen artean'** izenburupean, diapositiba emanaldia eskainiko du gaur, hilak 11, Fermin Armendariz abenturazaleak. Nafarroa Kirol Elkarteak antolatuta, 20.00etan hasiko da.

### NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

## Informazio arazoak

● Ez du jende asko ustekabeen harrapatu, aspaldikoa baita egoera, baina 'Navarra Hoy' egunkariaren egoerak iluntasuna dakar, ezinbestez, Nafarroako prentsa arlora. Gerra ondoko argitalpen nagusiak desagertuta, Nafarroatik bertatik soilik 'Diario de Navarra' eta 'Pensamiento Navarro' gelditu ziren. Azken hau, agonia luzea-

inguruko jendeak bultzaturik, sozialistek bereganatu zuten ondoren. Duela hiru urte berrikuntza prozesuan sartuta, egoerak okerrera jo zuen, egunkari nagusia gero eta nagusiago egiten zen heinean. Arazo ekonomikoek jota, azken urte honetan etengabeko arazoak pilatu dira, eta azken berriak benetan kezagarriak dira. Hasieran egunkari handi

nagusi eta ahaldua. Betidanik izan da susmoa prozesu honen atzetik egon dela —'Zure arerioa menperatzerik ez baduzu, elkartu berarekin'—, baina orain, inoiz baino gehiago. 'Diario de Noticias' izenez aterako dela zabaldu da, eta beste diarioko zenbait kazetariren partaidetzarekin. Honek, praktikan, batera murriztuko luke abertzaleek betetzen ez



ren ondotik, 1982an desagertu zen eta orduan sortu 'Navarra Hoy'. Egunkari nagusi bihurtua zenaren aurrean oreka probetxugarri eta estimatzen hartu zuen gizartearen arlo zabal batek.

Orduz geroz, gora-behera handiekin, kazeta navarrista eta abertzaleen artean orekari eusten saiatu zen Uhartzen egoitza zuena, eta hasieran EA

batzuek —'Diario 16-ek', 'El Mundo-k' edo 'El Periodico-k', kasu—, azaldu zituzten 'Navarra Hoy' erosteko asmoak, baina dena ahotz galdan gelditu zen. Konpetentzia handiegia, nonbait.

Egun, zuzendaririk gabe, berregitura sakonean murgilduta, egunkari berria etengabe atzeratzen ari dira. Eta hor sartzen da Nafarroako egunkari

duten esparru informatiboa. Kezkatzekoa.

Aniztasun informatiboak gizarte baten aberastasuna eta osasuna adierazten du garbi, eta bakar baten menpe egoteak, beti, urritasuna eta menpeotasuna. Are gehiago ikusi ditugunak ikusita. Baina herri honetan, oraindik ere, botere gehiegixko dago bakar batzuen eskuetan.

### ASTEKO PERTSONAIK



**Iñaki Perurena**  
Harrijasotzailea

Iñaki Perurena harrijasotzaile leitzarrak 320 kiloko harria jaso zuen joan den larunbatean Anoetan, Euskadiko Sei Orduen barruan, eta aise jaso zuen gainera. Marka berri honekin lortu du bere asmoa, Migeltxo Saralegiren errekorra berdintzea, hain zuzen. Garbi dago harrijasotzaileen erresuma Leitza dela, munduko bi onenak bertakoak baitira. Maisuak zekiena ikasi ondoren, ikasleak aurretik jartzea lortu zuen, baina, bere buruari eta besteei oraindik gai dela erakusteko, maisuak lortu du askok uste ez zutena. Oso pozik agertu zen Perurena, 37 urte izanda ez baita gutxi lan horietan ibiltzea. Harria jaso eta gero, zaletuari eskerrak eman zizkion eta bertso bat botatzeko ausardia ere izan zuen.



**Miguel Sanz**  
Gobernuko lehendakariordea

UPNren barruan iritzi ezberdin asko daudela gauza jakina da; Jesus Aizpun eta Juan Cruz Alliren jokaera eta ideiak, kasu askotan, guztiz kontrakoak izaten dira. Baina azken honetan, Alliren taldeko batzuk ere lehendakariaren kontra azaldu dira, Elkarriren gaian Miguel Sanzek esan duena, kasu. Jakina denez, Allik Elkarrikoekin bilera egiteko eguna jarri ondoren, aldatu egin zuen, beste konpromezu batzuk zeudelako, eta oraindik ez da egunik zehaztu, nahiz eta lehendakariak publikoki esan talde hau bakearen aldekoa dela, kontuan hartu beharrekoa. Herenegun, ordea, Miguel Sanzek SER irradian azaldu zuena ez dator bat iritzi honekin. «Elkarrik ez du ETaren indarkeria salatzen, kontra mintzatzen da, baina ez du salatzen», Sanzen ustez.

### AHAZTU GABE!

#### TXOTXONGILOAK

Helduentzako Txotxongiloen II. Erakustaldia hasi da Iruñean aste honetan. Udalak antolatuta, euskara erabiltzeko gunean sortzea eta sormen artistikoa bultzatzea dira helburu nagusiak. Bilboko 'Bihar' izeneko taldeak datorren aste teko lana aurkeztuko du, 'Cantervilleko mamua' obra, hain zuzen. Heldu den ostegunean izango da, otsailak 17, Nafarroako Antzerki Eskolan. Beste biak bezala, arratsaldeko 20.00etan hasiko da. Lehenbiziko lana atzo izan zen, Taun-taun taldearen 'Taun-taun show' izeneko obra eskaini baitzuten. Azkenekoa, berriz, otsailaren 24ean plazaratuko dute, leku eta ordu berean. Oraingo honetan, Gasteizko 'Pantarehi' taldea izango da protagonista, 'Alzateko jaun' Pio Barojaren liburuan oinarritutako obra taularatuko baitute. Txotxongiloen II. Erakustaldiaren aurrekontua milioi bat pezetakoa izan da, taldeei ordainzen, lokala alokatzean eta publizitatean gastatu dena. Iaz ere antzeko programa antolatu zuen Iruñeko Udalak, eta datozen urteetan ere egiteko asmoa du, erantzun ona jaso duelako.

#### jenero xumekoak

##### Gizona bere laguntzan

Errukarria bakarra ez dena, jausten bada, bi delagunak burua zapalduko bait dio.

ELIAS SARASA - ERRO

#### ADI!

##### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

##### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

##### RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

##### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



# Ferriak asteazkenean amaitu ziren, egitarau erakargarria bete ondotik

## IRUÑA

575. urteurrena. Erraz esaten da, baina nekez betetzen. Tafallako ferriak halaxe egin du, eta urtetik urtera desagertzen eta krisiak iragartzen badituzte ere, ez dio hutsik egiten zitari. Ganaduzale faltan—horiek bai krisiak jota—, tafallarrak eta auto nahiz makina saltzaileak agertzen dira urtero Ferrialera; asteazkenean izan zen egun handia, mila azien da buru inguru bildu baitziren bertan. Eta datu esanguratsua: 750 burutik goiti saldu ziren. Osasun ona, beraz, azaletik behintzat.

Aurreko egunetan, baina, izan ziren jaiak eta erakusketak. Joan den ostiralean zabaldu zen 'Tafallako Ferriak' izeneko erakusketa: argazkiak, agiri historikoak eta Arteetako Museo Etnografikoko lanabesak. Larunbatean, berriz, herri kirol jaialdia izan zen. Orduan egin ziren bertan artisau erakusketa eta antzinako autoen desfilea, besteak beste. Igandean, erraldoiekin ibilaldia izan zen hirian zehar. Halaber, ordu bietan, 'Cuto Divinoren Zozketa' izen zen Plazan, El



Ferriak eutsi egin dio urteroko zitari.

Empuje peñak antolatuta.

Astelehenean, hilak 7, 'La Voz de la Merindad' liburuen aurkezpena izan zen, Rosa Barasoainen eskutik, eta Tafallako Hiria IV. Ipuin Lehiaketako sariak ezagutarazi ziren. Asteartean, 'Gernika' izeneko antzez-lana eskaini zuen Ikastolako taldeak, eta Ferriari buruzko min-

tzaldia izan zen Kultur Etxean. Asteazkeneko ferriak eman zion amaiera ekitaldi erakargarri honi.

Eta ez da erraza izan, ez horixe. Nahiz eta inguruan atorra beltzeko tratanteak aspaldiak desagertu ziren, oraindik ganaduzale franko biltzen dira, gehienak Gaztela eta Valentzia aldekoak, eta baita Iparraldekoak ere.

## Iruña

### Zaldikok euskarazko bideo zerbitzua zabaldu du

## IRUÑA

Zaldiko Maldiko elkarte aski ezaguna da Iruñeko eta Iruñerriko euskaldunen artean. Euskarazko hameka ekitaldi antolatzen dituzte, hala nola mahainguru, solasaldi, hitzaldi, erakusketa, liburu aurkezpen eta bertze, denak euskaldunaren zerbitzuan. Bada, oraiko honetan gauza berria paratu dute, eta, dagoeneko, abiatua da euskarazko bideo-zerbitzua. Izan ere, berrogeita hamarren bat zinta daukate aukeran, bakoitzak gustukoena hautatu eta etxera hiruzpalau egunetarako eraman dezan. Badira filme klasiko zein berriak, fantasiazoak, dokumentalak, epopeia xarmagarriak, serie eza-gunak, abentura zirraragarriak, eta, oroz gain, marrazki bizidunak, etxeko gazteen, eta, nola ez bada, helduen gustuko izanen direnak.

Elkarteak bazkideei zein bazkide ez direnei zabaldu dien zerbitzu horretaz baliatzeko aski da bertara hurbiltzea. Hara joan, bat aukeratu eta tabernariari datuak eman. Elkarteak zabalik dago asteen sei egunez, astelehenetik larunbatera bitarte, eguneari lau orduz: arratsaldeko 7etatik aitzinera gaueko 11ak arte. Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak Alde Zaharrean dago. Antsoleaga karririkako 9an. Euskal bideozaleak, beraz, badu txirrinta non ase.

## Lakuntza

# Asteburu honetan banatuko dira literatur eta komiki sariak

## LAKUNTZA

Sakanako Euskara Zerbitzuak, urtero bezala, aurtengo literatur eta komiki lehiaketa egin du. Lehiaketa honetan Sakanako OHoko eta Ertaineko ikasleek parte hartu dute eta aurtengo lanen kalitatea nahiko ona izan da epaimahaiaren ustetan. Sariak igande honetan banatuko dira, hilak 13, arratsaldeko betan Lakuntzako Pilotalekuan; jarraian, 'Trokolo' antzerki taldeak 'Zalpartaka' lana antzeztuko du.

Hauek izan dira aurtengo sari-tuak: OHoko 5. eta 6. mailan, literaturan Amaia Reparatzek jaso du lehen saria; bigarren saria, Alaitz Ruiz de Luzuriagak eta Ane Zufiarrek, eta hirugarrena, Galder Gonzalezek. Komikian, Leire Satrustegi Markotegik jaso du lehen saria, eta Erkuden Zubiriak eta Ekiñe Ramosek bigarrena.

7. eta 8. mailan, literaturan,



Lakuntzako pilotalekuan banatuko dira sariak.

Aintzane Erdoziarendako izan da lehen saria, Jose Luis Asensio-rendako, bigarrena, eta Iraitz Goñiri eman diote hirugarrena. Komikian, Irene Txekak jaso du lehen saria, Iñaki Ruiz de Alegriarenkin batera, Adur Goikoetxeak bigarrena, eta Urko Karrerak eta

Xabier Unanuak, biak batera, hirugarrena. Ertainetan, Agurtzane Ormazabalendako izan da lehen saria, Oihana Ormazabalendako bigarrena, eta hirugarrena Iñaki Oiharbidek jaso du. Komikietan, Jon Igoa izan da nagusi, eta Ignacio Igoa bigarren.

## Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta


### Txoriak eta gau-txoriak

Bibliaren kapritxoak medio, usoa da bakearen sinboloa. Seguruenik hori dela eta, usoaren omenez hainbat kanta eta olerki idatzi da. Nork ez du Paloma San Basiliok abesten zuen 'kukurru-kuku usoa' mexikarra, edota 'uso zuria errazu...' euskal kantu zaharra gogoratzen?

Horiek guztiak, baina, ezin digute adimena nahasi. Usoak, hirietan batipat, bakearen sinbolo baino arratoi hegodunak besterik ez dira. Horren ondorioz, Iruñeko Udaleko agintari txit agurgarriek usoak 'desagertaraztea' erabaki zutenean, behingoz, beraiekin bat egin nuen.

Euren gorotzarekin hiriko estatua guztiak eta edonoren txapela, ilea edo pittera arriskuan jartzen duten animaliak 'desagertaraztea' zilegi iruditu zitzaizkidan. Horrexegatik ulergaitza iruditu zait gure hiriburu foraleko Udalak aste honetan zehar eginikoa, San Lorenzo, San Agustin, San Saturnino eta San Francisco elizetako kanpandorreetan zikoientzako habia prefabrikatuak paratzea, alegia.

Usoa eta zikoina antzekoak dira oso. Batetik, usoak bezala,



zikoinak badu bere alderdi mitikoa. Parisetik haurrak ekartzen ditu. Bestetik, zikoinak, usoak bezala, bere ingurua zikitzen du, bere habia garbia edukiarren, gorotz eta bestelakoak habiatik behera botatzen baititu. Denbora pasa ahala gorotzez beteko dira aipatu kanpandorre horien inguruak.

Zer gertatuko zaie orduan taberna batetik bestera doazela kanpandorre horietatik gertu pasatzen diren gau-txoriei? Benetakoz zorte ona dutenei sekulako txori-pastela jausiko zaie beren buru gainean, eta zorte txarra dutenek irrist egin, eta gorotzez blai eginda eritetxean amaituko dute gaua.

Lehendabizi tabernak goiz ixtea erabaki zuten, gero rock kontzertuak kalean zein tabernetan egitea debekatu, eta orain hau.

Ez da ez batere erraza Udalen honen pean gau-txoria izatea. Txoria izatea, berriz, bai.



**H**iru nafarrek paratuak dituzte atzodanik beren lanak Arcon, Madrilgo arte garaikideko azokan. Asun Goikoetxea, Dora Salazar eta Angel Bados Europako azokarik garrantzitsuenetakoan izanen dira Nafarroatik kanpoko galeriek eramanda, arteak egun duen krisiaren islada gisa. Izan ere, behialako setazko jantziak arkolazkoak dira egun: Arcoko arkola.

## Arkolazko artelanak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA


«Ez da izugarritzko aukera, baina ezer baino...». Artistek, galeriek eta arte munduak Arco arte garaikidearen azokaren garrantzia azpimarratzen dute eskaparate gisa, baina, era berean, bere benetako eragina gutxiesten saiatzen dira. Ez dira artearendako urte oparoak —norendako bai?— eta krisiak jota dabilta musak, antza. Nolanahi ere, itxura egin behar, eta itxurek oraindik garrantzi handia dutenez, Arcon lanak eskegitzea harremanetarako probetxugarria eta promoziorako baliagarria dela diote artistek eta galeria arduradunek.

Izan ere, Madrilgo azoka erraldoi hau Europako lau onenen artean dago. Gehiegitxo, aukera galtzen uzteko. Bertan inoiz izan denak beti azpimarratuko du hara hurbiltzen den jendetza handia, eta baita ganadu azoka batekin duen antza: aditu gutxi, taldeka banatuta, eta hizkera ezin teknikoagoa ezpaine-tan, eta begiluze franko, jakin-minez, baina ezjakintasunez. Hala ere, eskaparatea erakargarria oso. «Arcora joatea arriskatzeta da», zioen duela gutxi Bilboko galerista batek, eta horretan ados daude denak. «Inguru estu honetatik ateratzeko aukera ematen dizu, hau da, Euskal Herri-kanpo, Madril, zure la-

nak eta egiten ari zarena erakusteko aukera». Dora Salazar altsasuarra izango da euskal artista gazteen ordezkari bakanetakoa eta, nahiz eta azokak «gehiegi ez gustatu», lanak bertan paratzea «interesgarria» dela dio, dudarik gabe.

**SAKANAKO HIRU ARTISTA** Hiru nafar, hiru-rak Sakanakoak, daude atzodanik azokan. Aipatu Salazar, Asun

Goikoetxea bakaikuarra eta Angel Bados olaztiarra. Emaizta harriarriak izaten ari den zona-koak hirurak. Bertakoak baitira, hauekin batera, Jesus Poyo 'Txuspo' altsasuarra —egun New Yorken— edo, beste neurri batean, Jose Ramon Anda eskultore bakaikuarra. Batzuk dagoeneko franko ezagunak eta besteak hasi berriak, denen artean, bai eskulturaren bai pinturaren barruan, artearen garai berria



'Ab Initio' Asun Goikoetxearen lana.



**S**akanako hiru artistek merezimendu osoz eskuratu dute aurten Madrilera joateko txartela.

mentu industrialak azaltzen zizuten, lilura eta izuaren arteko sentimendu baten bidez. Egundak batzuk igarota, industriaren formak behin barneratuta, bere begiak naturara zuzentzen dira berrirori ere». Argazkigintza eta pinturaren arteko nahastea, kolorearen eta errealitatearen tratamendua nabarmentzen da bakaikuarren lanean. Eta koloreak du benetan garrantzia. Koloreak ezkututzen du errealitatea; baina,aldi berean, esanahia ematen dio, koloreak eraikitzen duen espazio horretan igerri baitaiteke errealitatea.

Dora Salazarren kasuan antzekotasunak aurki daitezke. Altsasun jaio eta laketua, bertan biltzen dituen materialak aprobetxatzen ditu irudi abstraktuak edo itxurarik gabekoak egiteko: errealitatea ezkutatzeko, finean. Horregatik, oso ezagunak dira artistak bere lanaren esanahiari buruz galdetzen diotenean izaten ohi dituen haserreak.

Nolanahi ere, garbi dute hiru-urteko urrats bat besterik ez dela, behintzat krisi garai hauetan. Merkatua inoiz baino ahulago baitago. «Duela urte pare bat bi milioi pezetan saltzen ziren koardoak orain milioi batean saltzen dira», aipatu zuen Dorak, «eta horrek esanahi argi eta garbia dauka. Egoera nahiko latza iruditzen zait». Mugitzen den bakarra —arte ulertzeko beste bidea?— fundazio handiak eta enpresak dira, eta Dick Rekalde iaz Arcon egon zen artista iruindarrak ongi laburbiltzen zuen: «Erakundeei saltzeko sasoi- gaude». Oraindik ez bide da aldatu.

osatu dute. Eta kasualitate hutsa izan bada ere, hiru artistek merezimendu osoz eskuratu dute aurten Madrilera joateko txartela. Hirurek, baina, arrazoi ezberdinengatik.

Angel Badosen joan den urtean Madril jaso zuen onarpen handienetakoa, bertako Velazquez Jauregian —eskultore ospetsu zenbaitekin batera— paratu zioten erakusketarekin. Bere ibilbide artistikoaren heldutasunean jada, Nafarroan aritzen den artistarik onenetakoa dugu olaztiarra, eta egun Bilboko Arte Ederretako Fakultatearen irakaslea da. Dora eta Asunen irakaslea, hain zuzen ere.

Asun Goikoetxearen lanak, berria izanagatik, onspen erabatekoa jaso du azken urteotan, baina Arco izanen da, hain segur, bultzada handienetakoa. F.J. San Martin arte kritikariaren arabera, Bakaiku eta Bilboren artean bizi izanak eragin ezinbestekoa izan du bere lanean. Bere ustetan, Bilbora heldu zeneko lanek «ele-



Angel Bados bere erakusketa batean.



mintzoak



**L**uis Taberna organo-jole lesakarra hil zen joan den igandean Donostian, 84 urte zituela. Altsasuko eta Erriberriko organo-jolea izan zen urte luzez, eta musikari guztien onspena jaso zuen bere bizitzan. Errautsak Urbanan eta erretiratu ondoren bizitoki aukeratu zuen Hondarribian (Gipuzkoa) aireratu zituzten senideek.

## Taberna, organo-jole buhamea

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

«Luis Taberna herriko organo-jolea zen, ez akaso elitekoa, baina nik Maurizio Elizalde txistulariarekin konparatzen dut». Fermin Iriarte San Fermin Ikastolako musika irakasleak ederki asko laburbiltzen du igandean Donostian hil zen musikari lesakarraren izakera. Denek onartua pertsona eta organo-jole gisa, ez zuen bere bizitza osoan lanik osatu, eta, antza denez, ez zuen grabaziorik utzi. Nolanahi ere, Nafarroako ondare kulturalaren zati bat zela ezin uka.

Lesakan jaioa 1909an, Francisco Viela bertako organo-jolearekin lotu zitzaion musikari, «ia nahi gabe», bere anaiaren tokia betetzera joan zenean. Ondoren Iruñean ikasi zuen Migel Etxebeste famatuarekin, eta urte luzez Irunberri eta Altsasuko organo-jolea izan zen. Bere jarduerak musikala, baina, bere lanarekin batera burutu zuen beti, Altsasuko taxista eta Musika Bandaren zuzendaria izan baitzen urte luzez.

Halaber, kontzertu franko eman zituen Euskal Herrian eta mundu zabalean, eta organo zen-

bait —Arantzazu, Leongo Katedrala, Leire, Iruñea, Gasteiz eta Alacantekoak, besteak beste— inauguratu zituen. 1962tik 1983 bitarte Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan katedraduna izan zen.

**«OSO INTERPRETE ZUHURRA»**

Kontsultatutako adituek, bere maila azpimarratzeaz gain, Nafarroarako izan zuen garrantzia aipatzen dute, bere garaiaren zeuden joerak aldatzerainokoa. «Oso interprete zuhurra zen», aipatzen du Lorenzo Ondarra bakaikuarra, «eta jotzen aditzen nion bakoitzean, musika lanak oso ongi lantzen zituela iruditzen zitzaidan». Organo-jole honek harreman zuzena izan zuen Tabernarekin, eta oso ongi ezagutu zuen haren lana. «Altsasuko organoaren inguruan behin baino gehiagotan elkartu ginen, eta berak eskaini zidan berarekin lan egitea, taxiarekin nahiko lan baitzuen, eta ondoan ikasteko lotura bat nahi zuelako».

«XX. mende honetan zegoen joera aldatu zuten berak eta Migel Etxebestek», dio Aurelio Sagaseta Nafarroako Organuzaleen Elkarte zuzendariak, «eta be-

raiek ekarri zuten hona Frantses Eskola delakoa. Orduko organo-jole gehienak bere aldetik ari ziren, beren lanekin, eta bi hauek hasi ziren Bach eta zenbait musikari frantziarren —Widor, Vierne, Germani— lanak jotzen. Etxebestek ekarri zituen konposatzaile horien lanak, eta ondoren Tabernak landu zituen».

**«ORGANO-JOLE BUHAMEA ZEN»**

Hala eta guztiz ere, eta bere maisu lana oso apreziatua eta ezaguna izanik ere, ezin esan ohizko organo-jolea zenik. «Buhamea zen» dio Fermin Iriartek, «aukera izanik Ameriketara joateko musikari, ez baitzuen nahi izan». Halaber, izakeraren berri ematen duen pasadizoa gogoratzen du musikagile zugarramurdiarrak. «Beraiekin abestu genuen Xabierren, San Frantzisko Xabierren egunean, eta gu Zangozako Abesbatzarekin geunden. Eta Mozarten 'Ave Deus' bezalako lan ezaguna abestu, berak organo jo, eta konpasa eramateko momentuan, bere aldetik joaten zen. Berak erraten zuen ez zitzaiola aunitz gustatzen konpasa lotzea, eta koroak bere atze-

## The Piano

● Ixiltasuna ez da gabeziaren ispilu, hitzegitea beti betetasunaren seinale ez den eran; hargatik beti xarma handiago aurkitu izan dut nik ixilaren atzetik izkututzen direnengan mutu egoten ez dakitenengan baino, akaso lehenengoan uzkurdua sekretu baten jagoleztat hartu izan dudalako beti.

Holly Hunterrek ezin bikainago antzetzten duen pertsonaia mutu honi pasio bortitz batek berotzen dizkio kirioak: pianoa; eta ezin kontrola dezakeen pasioa den aldetik animikoki hari helduta bizi da, naufragoa tirainak ibilitako egur puskari bezala, batipat bere beste pasioa omen zena —gizona— hil zitzaionez geroztik. Objeto honek hartuak dizkio buru-bihotzak, hain estuki ze berarik gabe ezinezkoa zaion bizitzea, berau alboan dueino esistentziaren non, nora, norekin, noiz eta gainerako koordenada guztiek axolarik ez diotelarik, antipodetara ezagutzen ez duen morroi batekin ezkontzera joatea kasu. Izan ere, pasioa duena ez da beronetarako baino bizi, eta errealtatea —espazioa eta denbora— bere aldardean eraginik ez duen huskeria da beretzat.

Pelikularen hasiera, hain zuzen ere, horixe dugu, bidai bat. Bidai ikaragarri luze honen ordea —Inglateratik Nueva Zelandaraionokoa— apenas hartzen du minutu erdia zeluloidean, milaka kilometro horietan dudarik gabe sufrituko zituzten ekaitz eta aldaizeak anekdota hutsa baitira pertsonaien barne-muinetan pianoaren kariatz hausten diren erauntsi animikoen aldean. Izan ere, pertsonaien norra alda erazten duten pasioen barnako bidaia introspektibo bat da Jane Campion zuzendariak eginikoa, gainerako pertsonaien status bera hartzen duen paisai ikaragarri sujerikor batek osatua betiere: oiha, etengabeko langarraren meneko pelikula guztian zehar.

Nola langar temosoak sortzen duen basa bazterretan, hala sortzen ditu mututasun

iraunkorrek sentimendu bortitzak ixilaren dudarekin bizi-tzera egokitu direnengan; dela erromantikoaren grina —ezezagunarekiko liluraz—, dela zuhurraren korromioa —ezezagunarekiko asalduraz— batak zein besteak —maitale eta senarra— pianoarekin egingo dute aurrez aurre emakumearengana hurbiltzen diren aldiro, eta bakar-bakarrik pianoa bide eta ez oztopo dakusanak iritsiko du, teklaz tekla, emakumearen bihotza.

Maitaleak pianoari adi mutuaren ixiltasuna sentimenduez janzen joango den heinean kasik ezin kontrolatzeraino astindu ere egingo du bakar-dadeak arrakalututako bere bihotz gaixotua, eta puzten doakion pasioak gain joko du hitzartutakoa medio emakumeak pianoa berreskuratzeagatik bere kutizia guzietan egiten dienean. Halare, lilura zikintzearen beldurrez, maitalea bera izango da zirtzart batek joku horri amaiera jarriko diona —«zoaz, uztagun hau guztia, ni miserable bat ez zu puta bat bihurtzen ari zara eta...».

Senarraren begirunea eta gozotasuna hutsaren hurrengo izango dira emakumearentzat hark garraio arazoak medio pianoa hondartzan uzteko erabakia hartzen duenean. Izan ere musika sortzen duen egurrezko tramankulu bat baino zerbait gehiago abandonatuko du senarrak emaztea ezagutu zuen egunean: haren arima; horregatixe alferrikoak izango zaizkio beronengana hurbiltzeko edota bere atentzioa bereganatzeko egingo dituen saio guztiak, emaztea, munduari lotzen zuen zilborhesterik ezean, ez irri ez negar egiten duen gorpu ihartu bat izango baitaizo ueoro.

«Zeozar esan al dik? Hitzegiten al dik inoiz?» galdetuko dio senar etsituak maitaleari hau bere emaztearekin partitxekotan denean, «zoriontsu izan al da hirekin?» galdetuz bezala, ixila zorigaitzaren eta hitz zorionaren adierazle zirelako uste inozoan oraindik ere.

Jokin Muñoz Irakaslea

tik joan behar zuen. Nahiko anarkikoa zen horretan».


Bere aldetik lan egiteko joerak ez zion galerazi, baina, oso estimatua izatea, eta horren adibidea izan zen organoak inauguratzeko egin zizkioten deialdiak. «Organobat inauguratzea oso garrantzizkoa zen», dio Sagasetak, «lehendabizi hauspoa nola zebilen ikusi egin behar zelako, 'arnasa hartu', eta gero horren inguruan inprobisatu. Oso garrantzitsua da». Behin, Italiara egindako bisitaldi pribatu batean, eliza batean ezagutu zuten, eta organoa

probatzeko erregutu zioten. Berak, baina, egun batzuk entseiatu gabe zegoela eta ezin zuela esan zien. Gehiago saiatu baziren ere, ezin izan zuten maisuarengandik notarik aditu.

Luis Tabernak ez zuen lanik konposatu, edo, behintzat, ez da ezagutzen. «Aditua daukat himnoren bat osatu zuela», dio Ondarrak, «baina ezin dut ziurtatu». «Noizbait aditu nion inprobisazioak egiten» azaltzen du Iriartek, «baina ezer ez konposatzeaz gain, grabaziorik egin gabe gelditu da, eta hori penagarria da».



## HAKEAN



Iruñea Hiriko Torneo Itxiaren laugarren ihardunaldiko partida, 1993ko abenduaren 30ean jokatua.

Zenon Franco, 2.480 ELOkoa (Paraguay)-Mario Gomez, 2.450 ELOkoa (Euskal Herria).

1. Zf3, d5; 2. b3, c5; 3. e3, Zc6; 4. Ab2, Ag4; 5. h3, Ah5; 6. Ae2, e6; 7. 0-0, Zf6; 8. c4, Ae7; 9. d5, Dd5; 10. Zc3, Dd7; 11. Gc1, 0-0; 12. Za4, b6; 13. d4, fG-d8. Askoz koparilatsua goa da hau, 'd5' jokaldi erraza baina. Ez dago ongi pentsatua. 14. c5, Db7; 15. Zd4, e5; 16. Ah5, b5; 17. Zc6. Oso jokaldi ona, beltzen estrategia osoa apurtu duena. Ikus koadroa. Jarraipen hau eskaintzen du: 17..., Gd1; 18. Ze7 xa, De7; 19. Ad1, a4; 20. b4. Beltzek partida oso ilun luke, nahiz eta piezetan berdintasuna izan, alfileko peoiak bide zuzena lukeelako. 17..., Dc6; 18. De2, a4; 19. Ae5, Zh5; 20. Dh5, De6; 21. Ag3. Beltzen 'g6' jokaldiak suntsituko zuen alfila, bestela. 21..., b3; 22. b3, Db3; 23. c6, a5; 24. c7, dG-c8; 25. Gb1, De6; 26. Gb8, g6; 27. Df3, Ga7; 28. fG-b1, Ab4; 29. Ae5. Eraso berria (Df6) prestatzearen ondorioz, beltzen defentsa ezerezuta gelditu da, aterabiderik gabe. 29..., f6; 30. Gc8 xa. Amore eman zuten beltzek. Beharrik gabe nahastu zuten partida, erantzuna gaizki neurtuta.


**B**ai gauza arraroak egiten ditugula ez ikastarren. Nere ikasteko nahiak berpizteko asmoz, ez baita nik uste nuen bezain erreza, euskarazko liburuan eskuetan hartu eta, inoiz egin ez dudana, apuntetan neukan liburuaren orri baten zenbakia ikustean kuriositatez liburua bertatik ireki egin dut. «Honek ez dauka ba oso itxura txarra», pentsatu egin dut nere bururako. «Aurrera, ba, ea honela ikasteko 'haizeak' etortzen zaizkidan!»

Irakurtzen nengoela gizon baten argazkiarekin egin dut topo. «Zein da hemengo tipo hau?», galdetu nere buruari, eta 'Antonie D'Abbadie' irakurri ahal izan dut argazkiaren azpian. «Napoleon en antza du ba!» eta tipoak jatorra zirudien (ez Napoleonen antza izateagatik, ez pentsa) bere bizitza irakurtzen hasi naiz, garai hartako giro politikoaz zertxobait irakurri berria bait neukan.

Ez dakit nola moldatzen ziren garai haieran (1850. urtearen inguru): ez zuten baliabide handirik izanen baina gizon hauek ez ziren etxean gelditzen denbora nola pasatzen zen ikusten.

Gure D'Abbadie jauna Toulousetik

## D'Abbadie



**Ainara Fernandez**  
BARAÑAIN

Etiopiarra joan zen (hori Irlandatik Toulousera joan ondoren) eta han ez dakit zein enperadoreari laguntza eskeintzeagatik (Negus edo horrelako zerbait izan al daiteke?) besteak ondasun ugari eman zizkion. Eta hona hemen larritu nauena: D'Abbadiek diru horrekin egin ahal izan zuen gauza pila, (nik behintzat loteria jasotzen zain nagoen bitartean proiektu asko dauzkat buruan), eta, zein da gure lagunaren ideia? Ba, diru horren zati handi bat euskal kulturaren mesetan erabiltzea, 'Lore jokoak' antolatuz, hain zuzen ere (eta hori euskalduna izan gabe...). Beharbada zuei normala irudituko zaizue edota beharbada garai hartan hori normala zen, baina neri normala ez den gauza iruditzen zait. Kontuz! Honekin ez dut esan nahi gaizki dagoenik, alderantziz, tipo honek txalo bero bat mereziko luke, jarraitu beharreko adibidea bait daukagu berarengan.

Pentsatzen dut bera ez dela horrelako zerbait egin duen bakarra izango. Horrela bada, eskerrik asko guztiei, gaur egun ez bait dago horrelako zerbait egingo lukeen norbait, inolako etekinik jaso gabe. Diruaren aurrean-mota guztietako printzipio eta izakera (eta abar luze bat) galtzen dutelako gehienek, denak ez badira.



JUANTXO URDIROZ

## Ezekiel Llorrente, 'El Jergon'

El jergon' euskal gaizkile-gintzan lehendabiziko serial thriller daukagu. Lizarerriaran lan egiten zuen. Osotara 200 lagun garbitu omen zituen, gehienak Iguzkizako osin batean ehortziaz. Rosa Samaniegoren talde karlistarreen lizentziatua, behin sartagin bat belarri jan bide zuen. Hilketaren adinako toles zituen bere atorrak. Ohi denez, berak famatutako osinean bota zuten denboraren buruan. 'El Jergon' hiltzaileari aurpegiaratu zizkieten karguak oso zehatzak dira. Hona hemen bilduma bat:

1873ko apirilaren 10ean Murietako Pedro Monet akabatu zuen Pedro Monet zangamotoz eta tentela zen. Egun berrean Larramendiko Juan Urria hil eta Ekalako osinera bota; Bazko egunean Zufia herrian 'kurtidore' bat jipoitu eta hil hurran zegoelarik osinera bota; Ekainean bi neska bortxatu, akabatu eta osinera bota; Karlistarrek harrapatutako ijito bat hil eta osinera bota; Lizarrako Francisco Lanz makiladez akabatu; Hiriberrin neska bat bortxatu eta osinera bota; Murietako agure bati arropa kendu



*Behin sartagin bat belarri jan zuen 'El Jergonek'. Hilketaren adinako toles zituen bere atorrak.*

eta osinera bota; Gizon bat buruz behera eskegi, erre eta odoletan blai osinera bota.

Zerrenda luze xamarra da, eta ez du merezi segitzeak. Argitu beharrekoa da ea 'El Jergon' gaizkile hutsa zen edota arrazoi-politikoak ziren tartean. Gorago esan bezala, talde karlistar baten bazkidea zen. Luciano Sanchezek, 'El Jergon' epaitu zuenak, aipatzen du nola 'El Jergon' honek harrar-harro zerrendatu zituen bere hilketak. Ez da damutu zitzaizolako seinalerik.

Egunotan Madrilgo eskale bat sonatu da, Francisco Garcia Escalero. Agi denez, 15 lagun garbitu ditu, «barrungo grina menperatu ezinezkoak

jota». 'El Jergonek' bezala, larrutan ibilitakoan putzu batean lurperatzen zituen gorpuak. Horren aurrean ze sentitu ahal da? Joseph Conradek Congoan edota Francis Coppolak Vietnamen sentitu zutena. Horrorea.

Lehendabizikoak oihanari leporatzen zion errua, kultur goldeak goldatu gabeko ekosistema basati horri. Coppolak, berriz, gerrateari. Zerbaiti errua aurpegiaratu behar zaio elkarri agurra ematen segitu ahal izateko.

Hala ere hasiak gara entenditzen, gure zibilizazioak eta oihanak, gure pakeak eta gerrateak badutela elkarren antza ikaragarria.



**N**ahi ta nahiez Larraun, Irurtzun eta Iruñeko musikariek osatutako taldeak bigarren maketa estreinatu berri du, lehendabizikoaren arrakastaren ondotik. David saxofoi jolea gogoan, arinago eta jantziago agertu da talde hau Nafarroako musikaren giro geldoan.

## Nahi ta nahiez: are arinago

E. DIEZ DE ULTZURRUN / IRUÑEA

Gure herrialdearen izena euskal kantagintza zaharrari estuki lotua agertzen baldin bada ere, ez da gauza bera gertatzen era berriko kantamoldeari bagagozkio. Izan ere, duela 30 urtetik honako bidean, kantari eta talde gutxi ibili da, kantu jeneroa zer nahi delarik ere. Gaur egun dabilzane, baita aritutakoei ere, nekearen hatsa darie diskoa karrikartzeko ahalegin gogor eta latzean, kolkoan sos gutxi izaki. Eta, dirua da, noski, argialetxeetako atak zabaltzeko giltzik onena, bertzenaz, kantariak edo musika taldeak negu gorriko horma baino gogorragoa topatuko du ate hori, iltzez eta giltzez itxita. Hala ere, sortu dira zenbait talde, eta, aukera izanez gero, behintzat, euren lana agertu nahi dute zinta bidez. Horietako bat, Nahi ta nahiez taldea dugu, bi urte exkasean doinu goxo kulunkagarrietatik gogor xamarretara pasa dena, begi-bistakoa baita hori argia ikusi berri duen maketan.

Nahi ta nahiez taldea duela bi urteko udan sortu zen, non eta



Goian ezkerrean, Jon Iribarren abeslaria; eskuinean Tito kitarrajolea, eta, ezkerrean, Gorka pianojolea eta Tito, Amadeus Donostiako estudioetan, maketaren grabazioan. GORKA URBIZU



Irurtzunen, zenbait musikazale elkarrekin egokituta. Jatorriz, harat-honatakoak, adinez gaztetxo-zaharxeagokoak, entseiatzen hasi eta bideari lotu zitzaizkion, gauza batzuk, bederen, garbi edukiaz, taldeko zaharrenak dioen moduan. «Hasi ginenetik beretik euskaraz egin nahi izan genuen, eta horixe jo, jakina, inorri soka motzean jarraitu gabe». 30 urteak ederki beteak dauzkan musugorri hori Jon Iribarren da, larraundarra, Allin sortua eta bertako alkatea, kristalak eta ispilua paratzearen lanbideak beta ekaintzen dionean, musika taldean abestu eta armonia jotzen duena.

Jotzen hasi eta hiruzpalau hilabetera etorri zen lehendabiziko maketa, Irurtzunen, Larraunen eta Iruñeko zenbait tokitan arras ongi saldu dena. Lehendabiziko

maketa horretako kantuak gainera, hameka alditan entzun dira Aralar Irratian, eta, batzuek sekulako arrakasta lortu dute: konparazio batera, 'Hau ez da nire mundua' eta 'Parisko kale batean' izenekoei. Taldeko zaharrena larraundarra eta adinean beste muturrean daudenak, horiek ere, Larraungoak dira, hots, Aitor Goikoetxea eta Gorka Urbizu, 17 eta 16 urtekoak, hurrenez hurren, biak Lekunberrikoak. Aitorrek bateria jotzen du; Gorkak, berriz, sintetizadorea eta pianoa, eta biak dira etorrera handiko letraegileak. Baxuaren doinuak Xabi Lizarraga irurtzundarraren eskutik ateratzen dira, eta bosgarrena Tito Trujillo da, Iruñekoa, gitarra jolea eta Esparto taldean ere aritzen dena. Nahi ta nahiez taldeak bazuen beste partaide bat, David Cordon

saxofoi jolea, joan den urteko irailean auto istripuz hil zena. Heriotza horrek, jakina, baldintzatu du erabat azken hilabeteotako bidea.

Lehendabiziko maketa plaza-ratu zutenetik, beti ere, zuzeneko kantaldiak ez dituzte eskas izan, eta 1993. urtea, alde horretatik, oparoa izan zen, zinez, Jon Iribarrenek azaldu digunez. «Bai, batzuk irurtzundarrak izanik eta beste batzuk larraundarrak, handik eta hemendik dei egin digute jotzera joateako, ez berbena moduan, baizik eta kontzertuak eskaintzeko, eta jendea hurbildu zaigu».

Horretaz landara, aipatu ere aipatu beharra dago Diputazioak antolatutako Pop Rock lehiaketan parte hartutakoak direla. Iazko apirilean izan zen hori. «Bostgarren gelditu ginen, 50rren bat



## David gogoan

E.D.U./IRUÑEA

■ Gauzak arras ongi zihoazen Nahi ta nahiez taldearentzako, eta horretantxe ari zirela, zoritxarreko auto istripuak lau irurtzundar gazteren heriotza ekarri zuen, tartean David Cordon saxo jolearena. Etsipenak hartuta, dudamudan ibili ziren aitzinera segi ala ez. «Ez genekien zer egin, jota geunden udazken hasieran, eta ongi pentsatu ondoren, gure artean hitz egin ondoren, erabaki genuen segitzea, Davidek hala eginen baitzuen eta horixe izanen zen haren nahia, dudarik gabe».

Daviden heriotzak utzitako hutsak, ordea, taldeak berehalakoan nabari zuen, saxofoiak ukitu berezia ematen baitzion Nahi ta nahiez taldearen musika moldeari. «Hori agerian dago lehendabiziko maketan. Doinua, oro har, lasaia da, lotuta goxo-goxo dantzatzeko modukoa, eta horretan bazuen zer ikusia Daviden saxofoiak, horretarako aproposa baita musika tresna hori. Horrexegatik, orain aldaketa etorri

zaigu...». Hala ere, Iribarrenek aipatutakoaz landa, bada bertze arrazoirik ere erritmoa azkartzeko edo gogortzeko, bi gazteen ahotsak aldatu egin baitira, helduen tonua hartuz.

David Cordonek parte hartu gabe, baina Irurtzuno gazte zenuaren oroitzapenak gogo-bihotzez bultzatuta, iritsi da bigarren maketa, hari eskainia, 'Ametsaren jarraipena' izena hartu duena. Lau kanta biltzen dira bertan: 'Askatasuna', 'Alkoholimetroa', 'Dirua' eta 'Inoiz ez'. Rock musikara egin dute jauzia, musika tresnak indar handiagoz astinduz eta kanta moldeari biziagoz. «Bai» dio Jonek, «gurasoek, berehala esan digute aldatu dugula, aurrekoa gehiago gustatzen zitzaiela, baina gazte jendearen artean hau ere oso ongi sartuko da, nik uste». Bigarren maketa hori salgai dago jadanik. Larraun, Irurtzun, Iruñea eta are Gipuzkoako zenbait herritan ere. Bostehun pezetan, eta erne ibiliko beharko du erosi nahi duenak batiere gabe gelditu baino lehen.

talderen artean, eta euskal talde bakarra gu ginen. Gero, gauza bera gertatu zen kantautoreen lehiaketan, Hara joan eta gureak izan ziren bakarrak». Ondotik, Nafarroa Oinez Altsasun zela eta, Sakanako bertze kantari eta musika taldeekin batera zinta grabatu zuten, eta, iragan larrazkenean, berriz, 'Udazkeneko jira

bira' kanpainen ibiliak dira, sekulako arrakasta erdietsiz Abaurregainean eta Iturenen.

Bitartean, egunotako egitekoa izan da bideoa grabatzea Euskal Telebistara igortzeko. «Horixe omen da sarbidea eta bide onena gure esparrua zabaltzeko, eta, nork daki, akaso telebistan aterako gara».



# «Bazen garaia hemendik ateratzeko»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

**EGUNKARIA.**— Bakaikun jaioa izan arren Bilbon egin dituzu ikasketak, eta bertan bi-zi zara. Artista izateagatik halabarrez egin beharreko sakrifizioa ala zuk eginiko aukera izan da hori?

**ASUN GOIKOETXEA.**— Nik egin dudana aukera izan da. Ikasketak amaitu eta gero Bakaikun urte bat eman nuen, eta Iruñean beste bi. Gero Bilbo aukeratu dut, han, oraingoz behintzat, gustura nagoelako. Dena den, beti nahastea gustatzen zait, eta asteburuetan eta udan askotan Bakaikun izaten naiz.

**EGUNKARIA.**— Dora Salazar eta Angel Bados, Arcon aurten

Arcon garrantzitsuena hortik zehar mugitzea eta erakusketa gehiago egiteko aukera lortzea da».

izanen diren beste bi nafarrak, zu bezala Sakanakoak dira. Hitz egin al daiteke zuen arteko nolabaiteko loturaz? Alegia, hitz egin al daiteke Sakanako eskola batez?

**GOIKOETXEA.**— Hirurok Sakanakoak izatea kasualitate hutsa dela esango nuke nik.

**EGUNKARIA.**— Zer deritzozu haien lanari?

**GOIKOETXEA.**— Dora eta biok elkarrekin ikasi genuen, eta Bados gure irakaslea izan zen. Badosen lana oso interesgarria da, oso berezia, oso pertsonala eta oso ondo sakondua. Bados askotan egon da Arcon, baina Dora Salazarrentzat aurten lehen aldian izango da. Bazen ordua!, han egotea merezi du eta. Bere lana, Badosena bezala, oso pertsonala da, oso ona. Askok gustatzen zait Dorak egiten duena.

**EGUNKARIA.**— Hirurok Leioako Arte Ederretako Fakultatean ibilitakoak zarete.

**GOIKOETXEA.**— Hemen besterik ez dago, eta agian horren ondorioa da. Horrekin ez dut fakultatea txarra denik esan nahi. Ni egon nintzen momentuan fakultatea oso ondo zegoen. Gero denetarik egon da. Bolada txarra igaro zuten, eta egun hobeto daudela ematen du. Fakultatea ondo dago, baina lortzen dena bakoitzaren arabera da. Zuk zure espezialitatea aukeratzeko duzu, eta horren inguruan mugitzen da dena. Zuk egiten duzuna oso

**GOIKOETXEA.**— Zerbait saltzea ez legoke gaizki, baina nire ustez hori ez da garrantzitsuena. Garrantzitsuena parte hartzea da, eta harreman berriak egitea. Zure burua ezagutaraztea ere ez dago gaizki. Finen, garrantzitsuena hortik zehar mugitzea eta erakusketa gehiago egiteko aukera lortzea da.

**EGUNKARIA.**— Horrelako azoka erraldoietan zeinek dauka irabazteko gehiago, artistak ala galeriak?

**GOIKOETXEA.**— Ez naiz inoiz horrelako batean egon. Baina nire ustez, galeristak lan ona

ondo dago, aukera gehiago baitago nire obra erakusteko, hobeto ezagutarazteko, eta obra gehiago jartzeko. Lan egiteko momentuan bai, zama handia da. Badakizu daukazun guztia eman behar duzula eta konpromezu handia dela.

**EGUNKARIA.**— Zure obretan argazkigintza, margolaritza eta eskultura nahasten dituzu. Zer bilatzen duzu anabasa horren bitartez?

**GOIKOETXEA.**— Espazioaren eta denboraren kontzeptuen inguruan nabil, eta hori oroimenarekin lotzen saiatzen naiz. Orain arte bakarrik pin-



Asun Goikoetxea Kribia Iruñeko galerian paratutako lan baten aurrean.

OSKAR MONTERO

garrantzitsua da.

**EGUNKARIA.**— Garrantzi berezia ematen al diozu zure lanak Arcon erakusteari?

**GOIKOETXEA.**— Bai. Aukera hoberena da Espainian zure obra aurkezteko. Arcora jende asko joaten da, eta ez bakarrik Espainiakoa, kanpokoa ere bai. Orain arte Euskadin erakusketa asko egin ditut, eta Madrilen bakarra. Bazen garaia hemendik ateratzeko.

**EGUNKARIA.**— Jendetza horrek zure lana ikusi eta gero zer espero duzu, harremanak egitea, zure burua ezagutaraztea, saltzea...?

egiten badu artistak asko irabaz dezake. Bestela, galeristak zerbait saltzeko helburua besterik ez badauka, agian jarritako dirua berreskuratuko duzu, baina deus gehiagorik ez duzu lortuko. Nola planteatzen duzun gauza, batak edo besteak irabaziko du.

**EGUNKARIA.**— Zure galeriak Arcora zu bakarrik eraman zaitu. Horrek presio edo erantzukizun berezia eragiten al du?

**GOIKOETXEA.**— Bai, erantzukizun berezia da. Esan zidatenean nahiko gogorra izan zen. Baina, beste alde batetik ere,

turak egin ditut. Batzuetan bestelako irudiak ere sartzen nituen, baina fotokopiak eta horrelakoak besterik ez.

Orain prozesua aldatu egin dut, eta objektu piktorikoak egiten ditut. Ez dira koadro planoak, bolumena baitaukat. Kontu ezberdinak nahasten saiatzen naiz. Egiten ditudan lanak ez dira eskulturak, baina eskulturaren zerbait sartzen dut, bolumena.

Beste alde batetik, argazkia sartzen dut, eta argazki prozesuekin pintura lortzen dut. Medio ezberdinetan lan egiten saiatzen naiz.

## Asun Goikoetxea

PINTOREA



SOSLAIA

### Sakanatik Arcora

Badirudi Sakanan Madrilera-ko bidean laburbidea topatu dutela. Egunotan, Madrilen Arco—Espainiako arte garaikidearen azokarik handiena—egiten ari da, eta bertan euren lanak eskegi dituzte Olaztikiko Angel Badosak, Altsasuko Dora Salazarrek eta Bakaikuko Asun Goikoetxeak. Sakanako hiru artista hauek ditugu aurten Madrilgo azokan lanak aurkeztu dituzten nafar bakarrak. Nekeza da oso Nafarroatik abiatu Madrilgo Arcora ailegatzea, azken urteotan Nafarroako galeria bakar bat ere ez baita bidaia egitera ausartu. Esan bezala, ordea, badirudi Sakanan Madrilera-ko lasterbidea topatu dutela. Horren berri eman digu Asun Goikoetxeak, 31 urteko artista bakaikuarrak.

## NISKIJATOR

© Zaldi Eroak

